

Juan Igoa Beltza
Etxarri Aranatz, Nafarroa (1907)

Aurkibidea

Biografia

Etxarri Aranatzen jaioa 1907an. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

ETX-044

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1986-01-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ETX-046

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo

- **Data:** 1986-01-01
- **Iraupena:** 1 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Sugeen inguruko azalpenak

- **Erref:** ETX-044/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

<p>Sugeen inguruko azalpenak. Zirauna.</p>

Transkripzioa

- Pues... beltxak, beltxetxio, beltxexo, eta mioak dia, mio, ta lepue're, meix-, mexoo; lepue... bu(r)utxabal bat? buutxapala? oiek dia bibo-, biborak. Aundiyak ez, e? oik ez tie... beste atzuk aundiek izaten dia, beia oik ez tie aundiyek.

- Eta izaten da beste bat, zirauna edo?

- Ziräuna, emen e zireunä esaten dogu.

- Horri?

- Orri, bei, beste...

- Bibora horri zirauna esaten zaio?

- Biborai ez, bestëa, bestea, zireunä edo dana? beste klase at da.

- Zernolakoa da?

- Izena, izena're zireune, guk ziraune esaten dou.

- Eta non ibiltzen da? zer kolore edo tankerakoa da?

- Us(i) u, kasi... esto... sugien estiloakoa da, beño oik eztebie oskik eta, aik eztebie eitten; laun-laun batzuk izaten doi, jendiä sentitzen dabie zzz-zzz-zzz... ra! estaltzen dias; oik eztebie geago... eztebie peligru geigo, oska eitteko ta ola.

- Lehorrean ibiltzen dira?

- Bai, bai, leorrian, oain beruekiñ e, sasitti ta ateatzen die ta... sugien estiloa baia distintuek dia, distintuek.

- Eta uretan ibiltzen direnak badira?

- Ez, uža... bah! užea sartuko die oik, egarriyek eta berdin, baña? eztait.

- Ez, bestela ez...

- Ez, ez; užin olakoik ez tia.

2. Kaikua, ardiak jezteko tresna

- **Erref:** ETX-044/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Kaikuaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Ardi jaizten ibili zara, e?
- Ni denbora askuen, urte askotan.
- Eta kaiku?
- Keikube da, eskuleku bet... zure da ori, e? zureskuä; da ura? esku bakar...- rakin ibiltzen dezu?... ta, marmite da, artu gider bateti? ta, ure beis ojalata, lata o chapa, marmite da beste. Bi, oik, bi ze ittubi(e) ta bi klase die oik... bi klase die oik: käiku(b)a, erdiyen? puntan artzen dezu ta, erdi-erdiyen daka, gider bat eta, marmitek beis(k), zeak, kat-, kat-, o... vamos, alanbre at, erdi-erdiya artu ta, balde at o bezela, ardi jeixteko.
- Bai, pozala bezala edo?
- Pozala bezela; ure da marmita, ta bestie keiku(b)a.

3. Urteberriko koplen oroimen urria Etxarrin

- **Erref:** ETX-046/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Urteberri egunean etxerik etxe kopla-kantari aritzeko ohituraren inguruan hitz egiten du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com